PARTIKULARREN ARTEKO EZOHIKO ORDEZKARITZA

Ordezakitzaren kontzeptuak

Ordezkatua
Aitorpen bat aurkeztera behartuta dagoen pertsona da.

Ordezkaria
Ordezkatuaren izenean aitorpena aurkezten duen pertsona da.

Ordezkaritza
Ordezkaritza pertsona batek (ordezkatuak) beste pertsona bat (ordezkaria) bere izenean aitorpena aurkezteko baimentzea da.

Nola gauzatzen da ordezkaritza?
Ordezkatuak berak bakarrik ezagutzen duen datu bat eman behar dio ordezkariari.

Zein da datu hori?
Ordezkatuak azken 4 urteetan Gipuzkoan aurkeztutako azken errenta aitorpenaren ordaintzeko edo itzultzeko zenbatekoa.

Adibideak

1. Adibidea

Pertsona batek azken lau urteetan:

- 2015eko errenta (2016 urtean aurkezten da)
- 2016ko errenta (2017 urtean aurkezten da)
- 2017ko errenta (2017 urtean aurkezten da)
- 2018ko errenta (2018 urtean aurkezten da)

Errenta aitorpen hauek aurkeztu ditu:

EKITALDIA	ZENBATEKOA (ORDAINDU EDO ITZULTZEKOA)
Errenta 2015	Ez du aurkeztu
Errenta 2016	Ez du aurkeztu
Errenta 2017	Ez du aurkeztu
Errenta 2018	350,58 €

Datua 350,89 izango da, 2018ko errentari dagokiona azken 4 urteetan aurkeztutako azken aitorpena baita.

2. Adibidea

Azken lau urteetan errenta aitorpen hauek aurkeztu ditu:

EKITALDIA	ZENBATEKOA (ORDAINDU EDO ITZULTZEKOA)
Errenta 2015	405,30 €
Errenta 2016	Ez du aurkeztu
Errenta 2017	563,89€
Errenta 2018	Ez du aurkeztu

Datua 563,89 izango da, 2017ko errentari dagokiona azken 4 urteetan aurkeztutako azken aitorpena baita.

3. Adibidea:

Pertsona batek azken bost urteetan errenta aitorpen hauek aurkeztu ditu:

EKITALDIA	ZENBATEKOA (ORDAINDU EDO ITZULTZEKOA)
Errenta 2014	202,15 €
Errenta 2015	Ez du aurkeztu
Errenta 2016	Ez du aurkeztu
Errenta 2017	Ez du aurkeztu
Errenta 2018	Ez du aurkeztu

Kasu honetan ez dago kontraste daturik pertsona honek ez duelako errenta aitorpenik aurkeztu azken lau urteetan.

Kasu honetan ezohiko ordezkaritza ezin da gauzatu.

Pertsona honek bulegoak ireki arte itxaron beharko du:

- Errenta mekanizatua egiteko.
- Zerga alorreko ordezkaritza bat gauzatzeko.

Nola egin partikularren arteko ezohiko ordezkaritza

Errenta kanpainan egoera ohikoena ezkontide batek edo izatezko bikoteko partaide batek bestea baimentzea izango da.

Gipuzkoataria-n sartu webgunetik:



Erabilitako azken zerbitzuak

- Zerga informazioa
- Errenta - Autolikidazio proposamena
- Jakinarazpen eta komunikazioen postontzia
- Ziurtagiriak Internet bidez
- Itzulketen egoerari buruzko kontsulta

Ordezkaritzen gunea

- Ordezkaritzen alta eta kudeaketa

Zerga arloko ordezkaritza

- Ohiz kanpoko zerga ordezkaritza berri baten alta
- Zerga ordezkaritza berri baten alta
- Zerga ordezkaritzen kudeaketa
- Tramitatzen ari diren zerga ordezkaritzen balioztapena

Orri honetara iritsiko gara, non **ordezkariaren** datu hauek agertuko diren:

- IFZ
- Izea
- E-mail (alda daiteke)



Ohar hau agertuko da:



Hurrengo orrian **ordezkatuaren** datuak bete beharko dira:

Ezohiko ordezkaritza bat denez beste datu hauek ere eskatuko ditu:

- Ekitaldia
- Kuota (azken 4 urteetan aurkeztutako azken errenta aitorpenaren emaitza)



"Kuota" ezagutzen ez badugu, horrela lor dezakegu:

1. Dagokion urteko aitorpenean.
2. Kontu korronteko mugimenduetan.
3. Zerga informazioa eskatuta:
    a. 943 11 30 00 telefonoan.
    b. Ogasuneko web guneko helbide honetan: Zerga informazioa: https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/RNTSolicitudInfoFiscWEB/inicio.do?idioma=E

Posta arruntaz jasoko duzu agiria, jakinarazpenak jasotzeko adierazi duzun helbidean.

Hurrengo orrian bi **eduki** hauek markatuta daude aldez aurretik:

1. Aitorpenak aurkeztu eta likidatzea, eta zerga alorreko informazioa eskuratzea
2. Obligazioak onartzea eta eskubideak baliatu nahiz haiei uko egitea. Kanpoan geratzen da ikuskaritzako zuzendariordetzaren aurrean jarduteko ordezkaritza



(Ezin dira ez aldatu ezta edukiak gehitu)

Eta indarraldia beti 2020/07/29a bitartekoa izango da



Hurrengo orrian **ordezkatuak** ordezkaritza eskaera sinatuko du (adibidean gako operatiboaren bitartez)

Baina beste edozein sinadura sistemaren bitartez sinatu daiteke.



Azkenik, aurreinskripzioa ondo burutu dela adieraziko du sistemak, eta dokumentua jaitsi dezakegu.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

ORDEZKARIEN ERROLDA

001 Ex

ALTA ESKAERA

ORDEZKARIA

30635373V - ARBAPPP MOLIPP IBONNNNN

@ mmmm@hotmail.com

TRAMITATZAILEA

30635373V - ARBAPPP MOLIPP IBONNNNN IBON

ORDEZKATUA

34099347F - IRAZU SAGASTIETA FERNANDO

ORDEZKARITZAREN EDUKIA

Zerga alorreko ordezkaritza

- Aitorpenak aurkeztu eta likidatzea, eta zerga alorreko informazioa eskuratzea
- Obligazioak onartzea eta eskubideak baliatu nahiz haiei uko egitea. Kanpoan geratzen da ikuskaritzako zuzendariordetzaren aurrean jarduteko ordezkaritza

ORDEZKARITZAREN DATUAK

Iraunaldia: 2020/07/29

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Behean sinatzen duenak bere erantzukizunpean adierazten du ordezkatuak zerga-ordezkaritza hau emateko borondatea adierazi diola.

INFORMAZIO-OHARRA: 39/2015 Legearen 69.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, erantzukizunpeko adierazpen batean jasotzen den edozein datu edo informazioren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo, administrazio eskudunari ez aurkeztea adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko dokumentazioa horretarako errekeritzen bada, berarekin dakar dena delako jarduerarekin jarraitzea egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. Halaber, administrazio publikoak xedatu ahal izango du ezinezkoa dela xede bereko beste prozedura bat hastea zehaztutako epe batean.

DECLARACIÓN RESPONSABLE

El / la abajo firmante DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD que la representada le ha manifestado su voluntad de otorgar esta representación tributaria

NOTA INFORMATIVA: De conformidad con lo dispuesto en el artículo 69.4 de Ley 39/2015, la inexactitud, falsedad u omisión en cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o la no presentación ante la administración competente de la documentación que sea requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio de la actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar. Asimismo, administración pública podrá determinar la imposibilidad de instar un nuevo procedimiento con el mismo objeto durante un periodo de tiempo determinado.